

Bi Mundu Gerren arteko gizartea eta politika

Sarrera

Lehen Mundu Gerra bukatu zenean 1918an, mundua suntsituta zegoen, eta, egoerari buelta eman nahian, herrialdeak berrantolatzen hasi ziren. Halako trantsizioko garai berri bat hasi zen, gerrako irabazle eta galtzaileen arteko tirabirek markatu zutena.

Hain zuzen ere, ezegonkortasun hori egoerari buelta emateko ahalmena eta baliabideak zituzten herrialdeek gestionatu zuten batik-bat. Gainera, 1920ko hamarkadan faxismoak gora egiten zuen bitartean inork ez zuen errotik geldiarazteko interesik erakutsi, eta estatueta orden sozial kapitalista kolokan jar zezakeen sozialismoa hedatzen hasiko zen 1917ko Iraultza Boltxebikearen eraginez.

XX. mendearen hasieran hedatutako orden sozial kapitalista horrek bilakaera bat bizi izan zuen, bai ekonomian, bai lan esparruan edota gizartean. Aldaketa hauek hainbat faktoreri esker burutu ziren.

Hala nola, garai hartako mekanizazio prozesuaren garapenak lanmunduan makinak nagusitzea ekarri zuen, bai hiri zein nekazal inguruetan ere. Bestalde, Industriak jada ez zituen langile kualifikatu edo espezializaturik eskatzen, eta horrek langilearen prototipoa aldarazi zuen.

Gizartea eta politika: 1919-1939

“Lan egin pentsatu gabe” bezalako ideietan oinarrituko zen ekoizpen filosofia berria nagusituko zen Lehen Mundu Gerra amaitzerakoan. Taylorismo zein Fordismoak ekoizteko modu berriak plazaratu zituzten gizartean, industrien estruktura mekanizatu berrirako baliagarriak izango zirenak..

Mundu kapitalistaren egoera: ekoizpen teknika berriak

Taylorismoa Frederick Taylor (1856-1915) ekonomista amerikarrak asmatu zuen. Hark aberastasunaren iturri nagusia, dirua beharrean, lana zela defendatzen zuen. Horrekin batera, lan-errendimendua hazteak kapitalaren pilaketa produktiboena zekarrela zioen hazkundearen teoria defendatu zuen. Helburu nagusiak produkzioa areagotzea eta ekoizpen-prozesua zorrotzago kontrolatzea zen. Horregatik lanaren antolaketa zientifikoa bideratu zuen:

- Produkzioa arlo ezberdinetan banatu zuen, ekoizpen-katea eratuz.
- Denbora integralki kontrolatzen zen, kronometroak erabiltzen zirelarik.
- Soldadak errendimenduaren arabera (ekoizten zenaren arabera) ezartzen ziren.

- Makinak soilik enpresaren buruak diren burgesen zerbitzu zein eskuetan daude soilik.

Aipatutako faktore guztien konbinazioak eragin ekonomiko sakona izan zuen arlo ekonomikoan, produktibitatea inoiz bezala areagotu baitzen eta enpresaburuaren mozkinak ere inoiz baina altuagoak izatera iritsi ziren.

Lanaren banaketa zientifikoaren ondorioz, hierarkia bat azalerratu da langile eta patroien artean, langileek ekoizpenaren tenpusen gaineko kontrolik ez baitute edukiko, hauen kontrola patroiek izango dutelarik.

Taylorismoaren aurretik, ekoizpen-katerik gabe, langileen ikasketa-prozesuak luzeagoak ziren, eta esperientzia pixka batekin gai ziren produkzio fase guztietan lan egiteko. Kualifikazio handiko langile horiek zailak ziren ordezkatzeko. Gainera, makinaren erabilera hain ohikoa zen testuinguru batean, langileen gaitasunak oso garrantzitsuak ziren, langile espezializatuek halako eragin-boterea zutelarik fabriketan.

Enpresaburuak ezin zituzten ekoizpen-tasak inposatu, zailtasunak zituztelarik langile kualifikatuak ordezkatzeko. Horrek ekoizpenaren erritmoa langileen eskuetan uzten zuen.

Taylor, lanaren erritmoa ezartzeko gai izateko, ekoizpena kontrolatu behar zuelaz ohartu zen. Horretarako, ekoizpen faseen banaketarekin eta fabriketan makinak erabiltzen hastearekin batera, langileek beharrezkoa zuten ezagutza-maila xumetu zuen. Horrela bideragarriagoa izango zen kontrola. Lan-baldintzak eta erritmoak zehazterakoan, langile espezializatuek zuten eragina galdu zuten, horren ordez laneko legeak eta baldintzak gailendu zirelarik.

Langileak lanerako beste tresna bat gisa kontsideratuz, ekonomiaren fundamentua beti gehiago ekoiztea izango da.

Fordismoa, aldiz, Henry Ford (1863-1947) asmatu zuen, hasiera batean autogintzaren arlorako. Hau, funtsean, Taylorismoaren fintze bat da. Honek, ekoizpen teknika berri gisa, hainbat elementu berri sartu zituen lantegietan:

Zintaren bidez, langileak ekoizpenean gutxiago mugitu beharko dira, eta, oinezkoa laneko jardura ez dela zabalduz, postuak ezarriko zaizkie langileei- Zinta beraren abiadura erregulatzeko ahalmenarekin, erritmoen gaineko kontrola areagotuko da ere.

Ekoizpen faseen zatiketa eta bereizketa nabariagoa emango da fordismoarekin, lanpostuetan espezializazioa eta trebetasuna ezabatzeko helburuarekin. Gainera, horrek zuzenean langileen formakuntza-denbora murriztagoa izatea eragingo du. Halaber, makinismoa bultzatuz, lantegietan gero eta makina gehiago egotearekin batera, langile gutxiago beharko dira (makinen errendimendua handiagoa denez, kaleratzeak egongo dira).

Zintaren berritasunarekin eta ekoizpen katearekin lotuz, langileak lerroetan antolatzeak inmediateki langileen gaineko kontrola erraztuko die burgesi, baita langileengan lan diziplina burgesa txertatzea ere. Bada, langile bakar baten erritmoa moteldu ez gero, kate guztian edukiko du horrek eragina, enpresariak hori baliatuko dutelarik nahi den erritmoa eta ekoizpen-errendimendu minimoak ezartzeko. Dena den, aldi berean horrek langileen arteko zaintza bultzatuko du.

Soldata (langileek haien erreprodukziorako behar duten baliabideak eskuratzeko ordainsari minimoa) kontrol tresna izango da kapitalistentzat. 1914an, Fordek hitzarmen orokor bat iragarri zuen soldaten inguruan. Erabaki aipagarriena orduko soldata orokorrak (2,5 dolarretakoak) bikoiztea izan zen ("Five Dollars Day Campaign").

Horrek langileen etengabeko hornikuntza zuen ustezko helburu, langileen automatizazioaren, langile buruen kontrol zorrotzen, lanaldien intentsitatearen edota desmotibazio zein abandonatze tasa altuen bidez egikaritu zena. Soldaten igoera langileek fordismoak exijitutako erritmo eta metodoak jasan zitzaizten eman zen. Hortaz gain, errendimendu handienak aparteko ordainsariekin saritzen ziren, izan langile produktibo edo langile buru.

Logikoki, honek guztiak atzetik kapitalismoak zekarrenaren aurrean itxura berri bat emateko balio izan zuen, baita ekoizpen-modu kapitalista bera ere zilegiztatzeko ere. Fordek babestutakoaren arabera, ongizate estatu batean langileak kontsumitzaile izan behar ziren, horretarako zuten tresna eraginkorrena soldata zelarik. Hala, soldata altuen bidez langileen kontsumo eredu berri bat bultzatu zen.

Soldata eta haren gastuaren kontrol zorrotz bat egin zen, ikuskatzaile eta kontrolatzaileen bidez. Gastuak fabriketako eskakizun-moralaren arabera izan behar zen. Hau da, gastuak desagokiak izatekotan, izan gaueko aisialdira edo sindikatuarekin izan zitzaketen harremanetara bideratuz gero, kaleratu egingo zituzten langileak.

Kontsumo eredu horren bidez, langileek ekoiztutakoa erosteko ahalmena izan behar zuten. Horrela, ekonomia komertzialak langileen etxetako esfera pribatuak inbaditzen hasiko zen.

Belle époque: Kontsumoan oinarritutako gizarte bat

Lehen Mundu Gerran, XIX. mendetik zetorren garapen teknikoa eten zen. Hala nola, gerrako ekonomiak (industrian eraginez), hildakoek zein lan-eskuaren murriztapenak zein suntsiketa masiboak eragin zuten. Hala ere, 1924. urte aldera, ekonomia berriz ere suspertzen hasi zen. Estatu Batuak gidari zein motor, 20. hamarkada hura “Belle époque” edo “Hamarkada Zoriontsua” bezala ezagutu zen.

Kontsumoari dagokionez, langileen alienazioak gora egin zuen, haien erosmenak hora egiten zuela ikusten zuten bitartean. Izan ere, lehen elite ekonomiko baten eskura zegoena jada kontsumo masiboaren baitakoa zen.

Masen aisialdia

- Erritmo berriak azaleratu ziren aisialdian, jazzaren edota charlestonaren eskutik.
- Sozializatzeko garaian, espazio berrien erabilera bultzatu zen, hala nola kabaret, zinema, elkarte-klub edota antzokiena.
- Kirolaren praktika elitista izatetik herrikoia izatera igaro zen.
- Aisialdi eredu honetan, etxeetara gero eta irрати zein fonografo gehiago iritsi ziren.
- Azkenik, publizitate modernoa agertu zen, kontsumora begira oso eraginkorra zena.

Aldaketa hauen bideragarritasuna hertsiki lotuta dago I. Mundu Gerra ostean AEB sistema kapitalista europearren erreferente bilakatzearekin. Hala, Europan, eredu estatubatuarreko kontsumo eredu, moda zein propaganda inportatzen hasi zen. AEBk orduan bizitako hazkunde ekonomikoa amaigabetzat saldu zen, maileguak hedatuz, edonork etxeak, autoak zein elektrogailuak eskuratu ahal lituzkeelarik (“American Way of Life”). Barne merkatuak Marshall Plana eta kontsumo-filosofia honen bidez garatu ziren Europan.

Hortaz gai, AEBtako finantza-sektoreek ere hazkunde bizi izan zuten, maileguak salduz gerraosteko Europako sektoreetara. Bada, AEBtako Wall Street burtsa kapitalismoaren oparotasun ekonomikoaren adierazle bilakatu zen. Kontsumoa bezala, burtsan inbertitzea edonoren eskura zegoela saldu zen. Ondorioz, gero eta hiritar gehiago inbertitzen hasi ziren, diru-iturri seguru eta agortezina zelakoan. Honek maileguen eskaintza gehiegi bultzatu eta langileak haien ahalmenaren gainetik bizitzen hastea suposatu zuen (merkatuaren logikaren baitan).

Kapitalismoa krisian: 1929ko Cracka

20. hamarkadaren amaierarako Europak ekoizpen erritmoa berreskuratuko zuen, AEBra egindako eskaria murriztuz. Beharakada honek superproduktzioa eragin zuen AEBtan, baita prezioen deflazioa ere. Honek Wall Street burtsako sozietate gehienek akzioen balioa gutxitzea eragin zuen, industria txiki batzuen itxiera eta langabeziarekin batera langileen erosmena jaitea eraginez. Egoera horretan, ekonomialari liberal neoklasikoen ikuskera eta Estatuaren esku-hartze eza nagusitu zen.

1928an eraikuntzaren garapena eten zen, eragin handia zuena Europan. Europak dependentzia hori galtzarekin batera, eraikuntzarekin lotutako hainbat sektorek izugarriko atzerakada bizi izan zuten. Berrito ere burtsako akzioek behera egin zuten, eragin orokorra izan zuelarik inbertsioetan parte-hartzen ari ziren langileengan. Hala, akzioen dirua murriztu edota desagertzen hasi zen.

Superproduktzioaren fase berri honek hainbat fabrika eraman zituen aurretik eta AEBtan krisi handi baten lehen aztarnak azaleratzen hasi ziren. 1929ko urriaren 24an ("Black Thursday") Wall Street modu masibo eta integralean erori zen, salgai zeuden akzioen prezioak hainbeste jaisteak inork erosi nahi ez izatea suposatuz zuelarik.

Egun horretan, salgai zeuden akzioen kopurua 13 milioitara iritsi zen AEBtan. Ikara orokor horrengatik domino efektua nagusitu zen, prezioek behera egiten eta akziodunek erosi gabe jarraitzen zuten bitartean. Gero eta inbertitzaile gehiagok jartzen zituzten haien akzioa salgai, behintzat diru kantitate txiki bat berreskuratzeko. Urriaren 29rako salgai zeuden akzioen kopurua 19 milioitara iritsi zen.

Banku entitateek inbertitzaileen dirua zutenez akzioetan inbertituta, banketxeek diru hori galdu zuten eta askok "krak" egin zuten, jendearen dirua "desagertu" zelarik. Eragin latza eduki zuen honek langabeziak etengabe gorantz egiten zuten testuinguru batean.

AEBtako krisi finantzario hark eragina izan zuen bai Latinoamerika bai Europan, bertan inbertitutako maileguak erretiratu baitzituen. Lurrean honetan ordura arte eredu liberala nagusi zenez, krisia masiboa bihurtu zen mundu kapitalistan.

AEBtan, kapitalaren dependentzia zeukaten fabrika asko itxi zituzten, langabeziak gora eta langileen erosmenak behera egiten zuten bitartean. Hala, garapena bertan behera gelditu zen. Bestalde, internazionalki bizi izan zen egoera AEBtako produktuak inbertitzeko ezintasuna izan zen. Beraz merkatu internazionala krisian sartu zen eta merkataritzak atzera egin zuen.

Krisiaren eragina Europan

Alemanian eta Austrian nabaria izan zen, AEBtako kapitalarekiko zuten dependentzia historikoagatik. Hala, krisia modu zorrotzagoan bizitzeak langabezia zein gizarte gatazkak asko igo ziren, ondorio politikoak nabariak izan zirelarik.

Frantzian eta BHN ez zen hain nabaria izan. Lehenengoan, banku sektorean nabaritu zen, baina industria nazionalak pisu gutxi zuen hartan, nekazaritza garatu eta dibertsifikatua baitzen nagusi. Bigarrenean, inperioaren handitasun eta dibertsifikazioari esker, merkataritzaren ekarpena mantentzeko gai izan zen, baina libra esterlina devaluatu behar izan zen.

Krisia dela eta, estatu europarrek politika protekzionistak garatu behar izan zituzten, menpekotasun oro saihestearren.

Ondorioak

Kapitalismoaren baloreak kolokan jarriko dira, merkatuaren subiranotasunean oinarritutako sistema ekonomiko eta politikoak biztanleriarentzat latzak izan daitezkeelakoan. Izan ere, babesik gabe, gizadia botere ekonomikoaren eskuetan geratuko litzateke.

Alternatiba gisa, ekonomian estatuaren esku-hartzea babesten duten ideal zein politika sozialak zabalduko dira. Hauetaz gain, sozialdemokraziari bidea irekiko zion keynesianismoa hedatu zen garai honetan ere (estatuaren esku-hartze ekonomikoa eta hiritarrei hainbat eskubide formal aitortzea). Sobietar Batasunetik haratago zabaltzen ari zen mamu komunistaren aurrean, estatu sozial berrietako propagandaz gain estatu totalitarioak azaleratzen hasi ziren Alemania zein Italian, kapitalismo “moderno” horren aurka ere:

Sozialistak gara, gaur egungo sistema kapitalista ustiatzaileen eta ekonomikoki ahulen etsaiak (...) eta sistema kapitalista suntsitu nahi dugu, bere alderdi guztietan.
(Adolf Hitler, 1927).

Zentzu onez kapitalismoa aldatzen badugu, uste dut baliagarriagoa izan daitekeela, nazioak dauzkaten helburu ekonomikoak inoiz baino hobeto erdiesteko.
(John Keynes, 1927).

Kapitalismoak partzialki egonkortu daiteke, bere ekoizpena partzialki kontrolpean egon daiteke, bere gobernu faxismoaren eskuetan utzi daiteke, eta langileen klasea errepresioaren bidez kudeatu daiteke. Baina kapitalismoak ezin izango du, inoiz, lehen erakusten zuen lasaitasuna, segurtasuna, eta egonkortasuna berriz erakutsi. Kapitalismo mundialaren krisia goraka doa etengabe, eta horregatik, iraultzaren su geldiezia piztuko eta hedatuko da.
(Iósif Stalin, 1927).

Demokraziak krisian, eta totalitarismoen igoera

Bi mundu gerren arteko 20-30eko hamarkadak ezegonkortasun handiko garaiak izan zen, Europan batik bat. Arazo ekonomikoak, 1929ko krisia eta "komunismoaren mehatxua" ziren egoera honen zergatiak. Alemaniaren kasuan, gerraren ostean garaileek inposaturiko "bake latzak" (Versalleseko Ituna) eragin handia izan zuen krisi ekonomiko eta politikoaren sorreran.

Demokrazien ahulezia zen nagusi eta gero eta onarpen sozial gutxiago zuten. Honen aurrean, esparru politiko berriak sortu ziren birsortze nazional baten beharra aldarrikatzen zutenak → faxismoak:

Hungaria (1920), Italia (1922), Turkia (1922), Espainia (1923), Polonia (1926), Errumania (1927), Jugoslavia (1929), Alemania (1933), Bulgaria (1934), Estonia eta Letonia (1934), Grezia (1936), Lituania (1936).

Totalitarismoen ezaugarriak:

a) Politikoak:

- Partidu/Sindikatu/Ikuspegi/Ideologia bat eta bakarra dago eta gizartearen arlo guztiak, Estatuaren menpe daude.
- "Lider salbatzaile bat" dago, nazioaren etorkizuna gidatu eta bere ahalmena berpiztuko duena antzina izandako boterea berreskuratzeko. Horrela, historiaren kontakizun totalitarioa hedatzen zen (Erromatar Inperioa, I. eta II. Reichak...).

b) Kontrol Soziala:

- Irratiaren, egunkarien, zinemaren eta gizarte komunikabideen kontrol totala (LUCE, UFA).
- Propaganda politiko mota berria, erasokorra eta masiboa. Horrela, beldurra hedatuz kontrola finkatzen eta disidentzia txikiagotzen saiatzen ziren. Ekitaldi masiboak egin ziren herritarrei eta munduari beren ahalmena erakusarazteko (1936ko Olinpiar Jokoak Berlingen).

c) Geografikoak:

- Oinarri desberdinetan finkatutako Inperialismo totalitario bat (Impero Italian, Lebensraum eta Pangermanismoa Alemanian).
- Inperialismo totalitario hauentzat etengabeko gerra ezinbestekoa da.
- Modernitatea militarismoarekin lotzen da eta militarismo espantsionista "arraza ario" edo "stirpe italikoa"-ren ahalmena erakusteko erabiliko da.

d) Sozialak:

- Alienazio ideologiko maila ikaragarria giza esparru guztien kontrolaren bidez: Lana, familien egitura, hezkuntza, aisialdia...
- Herria Estatuarekin identifikatzen da: indibiduo guztiak proiektu nazionalaren parte eta menpeko dira indibidualismoaren (banakako nahien) gainetik.
- Alienazio hau onura "politika sozialen" bidez gauzatzen da: aseguru sozialak (aberriaren herritarren osasuna sendotzeko edo demografikoki handitzeko familia ugariantzako laguntza ekonomikoak eskainiz), enpleguaren sustapena lan publikoen garapenaren bidez, etxebizitza eskuratzeko instalazioak.

Italiar faxismoa:

"El pueblo es el cuerpo del Estado, y el Estado es el espíritu del pueblo. En la doctrina fascista, el pueblo es el Estado y el Estado es el pueblo. Todo en el Estado, nada contra el Estado, nada fuera del Estado". Benito Mussolini.

Lehen Mundu Gerraren ostean, Italian krisi ekonomikoa zabaldu zen. Inflazioak gora egin zuen biztanleen erosahalmena kaltetuz eta gizarte gatazka handiak izan ziren, 1919-20 artean gehienbat (biennio rosso). Grebak eta lurren edo fabriken okupazioak eguneroko ogia ziren.

Gobernuak (sozialistak buruan -Matteotti-) boltxebismoari eta anarkosindikalismoari beldurra zion. Honen aurrean, langileak antolatzen hasi ziren. Klase ertaina haserre zegoen eta militarrek berriz, sozialismoaren antimilitarismoa zela eta haserre zeuden. Erregea, elitea, klase ertaina eta armada gobernuaren aurka batu zuren.

Faxismoa antolatzen hasi zen, beraz. 1919tik aurrera, Mussolinik *fasci di combattimento* eta *camicie nere* (paramilitar antikomunistak) sortu zituen: sozialista ohiek, militar ohiek eta eliteko kideek osatua (ordenaren aldekoek). Protesten aurka egiteagatik burgesiaren arreta eta laguntza jaso zuten.

1921ean, Partidu Nazional Faxista (PNF) sortu zen. Neurri sozial eta aurrerakoiak (soldata minimoa, gizarte segurantzaz...) proposatzen zituen eta sentimendu nazionalista eta gerrazalea defendatzen zuen, armada indartzearen alde eginez.

Partidua sortu eta gutxira, protagonismo handia lortu zuen alderdiak. Esaterako, 1922an, greba orokorra egin zen Italian sindikatu garrantzitsuen babesarekin baina faxistek greba "hautsi" zuten posta eta garraioan. Horren ordean, urrian "Erromara martxa" antolatu zuten, eraikin publikoak okupatu zituzten eta armada euren alde agertu zen. Gauzak horrela, gobernuak dimititu egin zuen eta erregeak boterea Mussoliniren esku utzi zuen.

Mussolini, bere lehenengo agerpenean Italiako parlamentuan, ministroen presidente gisa (Azaroa, 1922):

“He rechazado la posibilidad de vencer totalmente y podía hacerlo. Me autoimpuse límites. Me dije que la mejor sabiduría es la que no se abandona después de la victoria. Con 300.000 jóvenes armados totalmente, decididos a todo y preparados casi místicamente a ejecutar cualquier orden mía, puedo castigar a cualquiera que haya difamado e intentado ensuciar al fascismo. Puedo hacer de esta Aula sorda y gris un campamento de soldados: podía echar el cierre al Parlamento y constituir un gobierno exclusivamente de fascistas. Podía, pero no he querido, al menos en este primer momento”.

1924an Matteotti (faxistei indarkeria eta iruzurra leporatu zien politikari sozialista) hil zuten. Hasieran kalte egin bazien ere, faxismoaren indartze politiko progresibo bat eta gero, 1926an Mussolinik legeak aurrera eramateko boterean ezarri zuen bere burua, parlamentuaren baimenik gabe. Faxismoak Estatu demokratikoarekin bukatu eta Diktadura batean oinarritutako Estatu totalitario bat eraiki zuen non:

- Alderdi bakarra zegoen eta Estatuarekin identifikatzen zen.
- *Ducea* zen burua, gobernua eratu zuena.
- Milizia eta *squadra* faxistak indartu ziren.

Italiar faxismoa nazismoarekin ezberdindu zen, instituzio tradizionalak errespetatu eta faxismoaren oinarri bihurtu baitzituen. Horren adibide dira erregea 1943ra arte egon izana, Elizaren Letrango paktua (1929) eta patronala.

Faxismoaren ezaugarriak:

a) Espantsionismoa:

1922-30 artean Trieste, Rijeka eta Zadar, Albania (1934) eta Etiopia (1935). Irredentismotik (Italiak “Salbatu” behar zituen lurraldeak, bere nazioaren zatitzat hartzen zituenak) inperialismora igaro zen (Abisinia).

b) Ezaugarri ekonomikoak:

- Estatuaren interbentzioa eta protekzionismoa.
- Autarkiarako joera (1929tik gehiago).
- Enpresa talde handiei mesedeak gobernutik.
- Oligarkia berri baten sorrera, aberastutako jende asko.

Hala ere, gehiengoaren bizi baldintzak ez dira hobetzen, elite baten babesa baitzen faxismo italiarraren helburua.

c) Gizarte osoaren kontrola:

Opera Nazionale Balilla y Dopolavororen bidez aisialdia kontrolatzen zen, PNFk politika eta lan esparruak kontrolatzen zituen eta hezkuntzaren kontrola Juventudes Fascistas-en eta Gazte Unibertsitario faxisten bidez eman zen.

Alemaniar nazismoa:

Alemaniarrek 1. Mundu Gerran galdu, eta monarkiari amaiera eman zien; Kaiser Guillermo II izan zen azken enperadorea edo Prusiako azken erregea. Horrela bada, errepublika ezarri zuten Weimar hirian. Gerrak suntsituta eta politikoki banatuta utzi zuen Alemania, eta bake baldintza gogorak ezarri zitzaizkion Versaillesko Itunaren bidez.

Ekonomikoki zorretan gelditu zen; krisian murgildu ziren. Ezin zituzten zorrak ordaindu, eta 1923an, Frantziak Ruhr, gaur egun Europako eskualde industrial handiena dena, okupatu zuen bere industria kontrolatzeko; beste humilazio bat alemaniarrentzat.

1924-29 bitartean egoerak hobera egin zuen; baina 29an, berriz ere amildu egin ziren. Krak-a eta gero, herria gobernuaren kontra azaltzen hasi zen gero eta gehiago, ustelkeria kasu garrantzitsuak ematen ari baitziren jasaten ari ziren egoera latz hartan.

1919an, Drexlerrek Alemaniar Langileen Partidu Nazionalsozialista sortu zuen (geroago Partidu nazi gisa izendatuko dena). 1921ean, Adolf Hitlerrek bera buru zen partidua eta SA (milizia) sortu zituen. Propaganda antisemita (judutarrek etsaitzat hartzen dituen) hartu zuen aurrera eramango zuen politikaren oinarritzat, eta gurutze gamatua, saludo faxista eta kamiseta pardoak izan ziren erabili zituen sinbolo adierazgarrienak.

1923an, estatu kolpea eman eta porrot egin zuen; beraz, Hitler kartzelaratu egin zuten 6 hilabetetarako. Bertan, Mein Kampf, elementu autobiografikoak dauzkana eta nazionalsozialismoaren ideologia politikoari ekarpen berriak egiten dizkion liburua, idatzi zuen.

1929. urtearen ostean, naziak indar handia hartu zuten: klase ertainak, nekazariak, langileak, militarrek eta burgesia kontrolatzen zituzten. 1933an, Hitlerren NSDAPa partiduak hauteskundeak irabazi, eta SAren aldeko propaganda hasi zuten; judutarren aurkako erabateko akosoa. Bertan azal beltzeko jendea, ijitoak, Amerika eta Ingalaterrako dirudunak eta komunistak ere sartzen dira. Judutarren gisara markatzen dituzte.

Prentsa askatasunarekin amaitu eta kalean beldurra zen nagusi. Eskubide indibidualak debekatu zituen Reichstag parlamentu alemanak. Hauteskundeetan, botoen %43a bereganatu zuten katolikoek laguntzarekin. Parlamentuak Hitlerri botere osoa eman zion; beraz, 1934an, Hindenburg (Alemaniako presidentea 1925-1934 bitartean) hil eta bera jarri zen karguan. Diktadura hasiera zekarren horrek; Hitlerren nazien diktadura.

Partiduak eta sindikatuak (Partidu Nazia eta Lanaren Frente Nazionalsozialista) debekatu zituen. Partidua botere judiziala delitu politikoak egiteko erabiltzen hasi zen. Poliziaren ordez, SS (Hitlerren menpe zegoen erakunde politiko, polizial, militar, penitentzialari eta segurtasuneko) sortu zuen; eta 1934an Gestapo (SSren mendekoa zen Alemania naziaren ezkutuko polizia ofiziala). SSren aldeko propagandan etsaiarengandik, deabruarengandik (judutarrak, ijituak...), babesten zituztela azaltzen zuten. Kontzentrazio Esparruak ere ireki zituzten: Dachau eta Buchenwald, 1933 (1934an, 50 esparru zeuden).

1934an, Aizto Luzeen Gauean edo Kolibri Operazioan Adolf Hitlerren aginduz SAko buruzagiak atxilotuak edota erailak izan ziren. Alderdi naziak estatuaren estruktura guztiaren jabe izan nahi zuen, beti ere SA edo alderdi naziko eraso taldeen laguntzarekin. Gobernura iritsi zenean, Hitler enpresaburu eta militarrekin harremanak estutzen saiatu zen. Indar ikaragarria lortu bazuen ere, ez zuen gehiengo absolutua. Harreman honetan SA oztopo handia zen, bere biolentziak burgesia beldurtu egiten baitzuen erabat eta armada berak mesfidantzaz begiratzen baitzion bere lehia eta handinahari.

Alemaniak munduko potentziatako bat bihurtu nahi zuen; beraz, aldaketa ekonomikoak eman zituen: estatua bere errekurtsio propioekin egiten hasi zen aurrera (autarkia). Industria astunak eta militarrek garrantzi handia hartu zuten, gerra ekonomia zen nagusi. Prezioak eta soldatak kontrolatu ahal izan zituzten lan publikoen bidez, eta grebak debekatu egin zituzten. 1939an, munduko 2. industria handiena izatera iritsi zen Alemania. Ez zegoen langabeziarik, bankuak eta enpresa handiak aberastu egin ziren, gizartearen gaineko erabateko kontrola zeukaten, ongizate ekonomiko maila handia lortu zuten, aurrerapenak ere eman ziren eta, horrela, jarraitzaile gehiago jaso zituzten.

Gizartearen gaineko kontrola erabatekoa zen. Arrazaren purutasuna eta osasuna defendatzen zuten. Arazo fisiko-psikologikoak, ijitoak, judutarrak... baztertu egiten zituzten, eta kirola Alemaniar hobea izateko era bilakatu zuten. Gizarte osasuntsuak, gizarte indartsuak, osatzen zuen NAZIOA. Oposizioa isildu nahi zuten; beraz, intelektualek ihesari ekin zioten (Einstein, Hesse). Hezkuntza kontrolatu, eta arraza puruaren kontzeptuan hezten zituzten. Manifestazio handiekin, espazio publikoak okupatu, eta kudeaketa arraza puruaren arabera izaten zen. Fuhrerrenganako kultua indartzea zen helburua.

II. Mundu Gerra

Sarrera: Arrazoiak eta aurkariak

II. Mundu Gerrak, I.aren antzera, hainbat arrazoi soziopolitiko eduki zituen eztanda egin aurretik. Hala nola, hauek ziren arrazoietakoz batzuk:

- Alemaniarengan mendeku nahia bazen, I. Mundu Gerrako porrota eta Versaillesko Itunaren ostean.
- 1929ko Cracka deituriko krisi ekonomiko kapitalista mundialak baita Europako faxismo espantsionistaren agerpenak nazioarteko tentsio-egoerak areagotu zituen. Italiaren kasuan, Mussoliniren jarraitzaileek Italiaren handitasuna Erromatar Inperioari zegokionarekin alderatu zuten, eta, Alemaniako naziak, nazioari zegokion "Lebensraum"-arekin (Berrarmatze orokorra).
- Aipatutako krisiak jo puntuan jarri zituen Europako demokrazia liberalak, hauek inobilismora bultzatuz.

Gerrarantz martxan

Tentsio egoera orokor honetan, Asiako esparruan Japoniak 1933an Txina inbaditu zuen, haren joera espantsionistari fidel izanik (Inperioa bera zabaltzeko nahia). Bi urte beranduago, Italiak Afrikan Etiopia okupatu zuen, 1936tik aurrera nazioari "Impero" deituko ziotelarik faxistek. Aldi berean, 1939an Albania bereganatuko du Italiak.

1936an hasitako Espainiako Gerra Zibilean Alemaniak eta Italiak Mugimendu Nazionala lagundu zuten, brigada internazionalista bakan batzuk kenduta, Europak Errepublikak lagundu ez zuten bitartean.

Alemaniak bere aldetik, naziak jada boterean zeudelarik, Renaniako Frantziako muga militarizatu zuen 1936an eta bai Austria (Anschluss deiturikoaren bidez, Austria eta Alemania nazia elkartu baitziren) bai Sudeteak bereganatu 1938an.

Aliantzak eta gerraren eztanda

1936an, faxistek Erroma-Berlin ardatza adostu zuten akordio gisa, edonolako babes eta elkarlanerako. Era berean, orduko Internazionalaren eta mugimendu komunistaren aurka Antikomintern akordioa adostu zuten Alemania eta Japoniak. 1939an, Alemaniak eta SESBek Ekialdeko Europako eragin eremuak banatu zituzten, ardatz Polonia hartuta eta elkar erasorik egongo ez zelakoan. Orduetik aurrera, eragin eremuak egonkortzera abiatu ziren.

Gerraren hasieran, printzipioz Alemania eta Italia Frantzia zein Erresuma Batuen aurka postulatuko dira, geroago aipatu gabeko beste estatu batzuek parte hartuko duten arren: Japoniar Inperioa, AEB, Europako hainbat herrialde... Garai honetan, bi eragin-eremu nagusiak Europa zein Afrikaren iparraldea eta Ozeano Barea izango dira.

Gerra totala: Gatazkaren garapena

Lehen fasea: “Ardatzaren” garaipenak (1939-1941)

Alemanien hasierako lehen garaipenak bi ardatz eduki zituzten oinarrian. Hala nola, “Blitzkrieg” izeneko tximista-gerra ereduak finkatutako erasoaldietan bonbardaketa sakonak eta berehala tankeak (panzerrak) bideratzea defendatzen zuen, edonolako defentsa baten antolaketa eta lubaki gerra saihesteko. Bestalde, aurretiko urtetatik garatutako industria militarren eta nazioarteko komertzioaren ondorioz teknologia militar aurreratua lortu zuen Alemaniak.

Hala, 1939-1940 bitarte Polonia, Norvegia, Belgika, Herbehereak eta Frantzia inbaditu zituen Alemaniak, tartean oztopo batzuk eduki zituen arren.

1939ko uztailetik urrira Ingalaterrako guda bizi izan zen, non RAF izeneko abiazio ingelesak Luftwafe izeneko abiazio alemaniarra geldiarazi zuen. Hortaz gain, Ozeano Atlantikoan itsaspeko alemaniarrek aliatuen itsasontziak erasotu behar izan zituzten, horniketak saihestu eta ahultzeko.

Aipatzekoa da ere alemaniarrek diseinatutako “Barbarroja” operazioa (1941eko ekaina- abendua bitarte), Sobietar Batasuna inbaditzeko. Orduan, Leningrado (egungo San Petersburgo) hartu eta ia Moskura arte iritsi ziren, baina Stalingradoko gudaz geroztik atzera egin behar izan zuten.

Azkenik, Afrikaren iparraldean, Italiarrei laguntzarren, 1941 eta 1942 bitarte Rommel eta “Afrikakorps” nazi alemaniarrek ingelesen aurka borrokatu ziren, Libia zein Egipton. Honek guztiak 1941eko bukaeran Europako zati handiena Alemaniaren esku eta kontrolpean egotea suposatu zuen.

Ozeano Barean, inflexio-puntua bizi izan zen Ardatzeko Potentzientzat. 1941eko abenduan Japoniako Inperioak Pearl Harbour erasotu zuen, AEBk Ozeano Barean zuen base militar garrantzitsuena. Ondorioz, AEB gerran sartu zen 1942ko hasieran.

Europa, nazismoaren menpe (1942)

Aipatu bezala, Alemaniaren nagusitasun militarra nabaria zen. Hala lortu zuen inbadit eta kontrolatzea Norvegia, Frantzia "Atlantikoa" (iparraldea), Jugoslavia edota Grezia. Errumania ere nazien kontrolpean egon zen 1940-1944 bitarte Antonescu diktadore kolaborazionistak herrialdean agindu zuenean. Aldi berean, nazien aliatu gisa funtzionatu zuten herrialdeak egon ziren. Apaturiko Antonescuren kasua edo Eslovakian 1939-1944 bitarte Josef Tisoren agintaldia faxismo berri horien adibide dira. Bestalde, kolaborazionismoaren adibide argiena Frantziako Vichyren gobernu izan zen.

Honek guztiak, logikoki, nazien aurkako erresistentzia bat antolatzea ekarri zuen inbaditutako lurraldean, adibide argiena Balkanetako (Albania, Jugoslavia) partisauek dauzkagularik (hauek ere Italian antolatu ziren arren, Mussolini eta Alkandora Beltzak faxisten aurka). Gainera, partisauek ere egin zieten aurre faxistei Europa Ekialdean (Polonia, Ukraina, edota judutarrek).

Bere aldetik, Frantziako Alderdi Komunistako militanteak izan ziren Vichyren gobernu kolaborazionistari aurre egin zion Erresistentziako kide gehienak.

Aliatuen garaipenak: 1942-1945

1942tik aurrera AEBn eta SESBn parte-hartzea nabariagoa izan zen, aliatuen koordinazio militar eraginkorrarekin batera. Bada, hurrengoak izan ziren aliatuen eraso esanguratsuenak:

Ipar Afrikan aliatuek 1942an El-Alamein (Rommel eta "Afrika Korpsek" Egipton zuten kontrolpeko eremua) hegoalde, ekialde eta ipar-mendebalde erasotu zuten. European aldiz, inflexio-puntuak izan ziren hein handi batean 1940tik Sobietar Batasunak Ekialdeko frontean armada nazia % 70a garaitu izana eta 1944an AEB Normandiatik European sartu eta gerrako ofentsiba bultzatu izana (kasualitatez erresistentzia eraginkorki antolatu zenean).

Horren aurrean, ez ekialdeko bultzada, ez mendebaldekoa (Frantzia, Erresuma Batua, AEB) ezin izan zituen errotik geldiarazi Alemaniak eta III. Reicharen mugak murriztuz joan ziren, 1945eko maiatzean sobietarrak Berlinen sartu arte (nazien porrota eta Hitlerrek bere buruaz beste egitea).

Ozeano Barean, 1942an Midway Irletan AEBk haiek kontrolatzeko Japoniaren saiakera geldiarazi zuen, hurrengo urtetik aurrera AEBn nagusitasun tekniko Ozeano Bareko frontean nabaria izango zelarik. Japoniak, hala ere, gerra-kultura ezberdina zuten, eta Inperioaren ohorearen izenean amore emateko ezintasuna helarazten zuten. 1945eko abuztuan, egoera horri baita gerrari ere estatubatuarrek Hiroshima eta Nagasakin bomba atomiko bana botaz amaiera eman zioten, Japoniak errendizioa sinatu baitzuen.

Gerraren ondorioak: Genozidioa, heriotza, suntsipena

Ekialdeko Frontean suntsipena nabaria izan zen, bertan garaitu baitzuen Armada Gorriak armada naziaren gehiengoa. Hortaz, basatiki geratu zen suntsituta. Horrek atzean bazuen talka ideologikoaren (komunismoa eta nazismoak elkarri aurre egin nahi zieten) eta arraza-gerraren ("übermensch" arraza arioa eta "üntermensch" arraza judutar zein eslabiarra) pisua.

Hasieratik, aliatuen eta Ardatzeko Potentzien artean "beste" guztiz akatzeko gerra sustatu zen. Horregatik, gerran zehar Alemaniak gerra presoak hartu zituen bere gain (Kontzentrazio esparru eta horrelakoetan), bereziki Frantzia eta Polonian. Sobietar Batasunak, bere aldetik, naziak preso hartu zituen, hil bitarte.

Naziek ezarri nahi zuten ordenaren aurrean, SESBk gidatuta, aliatuek ezinbestean zuten guztiarekin naziak garaitu behar zituztela erabaki zuten. Hala, naziek bizitza guztiz mespretxatzen zuten bitartean, gizatasun gabeko gerra bideratu behar izan zen, Alemania Naziak aurrera egin ez zezan.

Genozidio judutarra

Europar, alemaniarrek 6 milioi judutar inguru hil zituzten, atzeko zergatia bat zelarik bereziki.

Bai Italiako bai Alemaniako nazi-faxismoak, haren birsortzea bultzatzeko, "munduaren gainbehera" atzean utzi behar zuten. Hain zuzen ere, munduaren gainbehera hori arraza jakin batzuekin lotu zuten eta, beraz, birsortze hori arraza ahul eta inperfektuen suntsipenarekin eman behar zen. Hala, mundu berri hori osasuntsu eta indartsu jaioko zen, non nabaria izango zen arraza arioaren nagusitasuna.

Juduez gain, naziek sarraskirako helburu gehiago eduki zituzten, haien arraza kontzeptutik at zeudenak, baina mailak bereizi zituztenak. Arraza eta erlijioaren arabera, ijitoak, eslabiarrak, Jehovako testiguak eta, bestalde, komunistak, bakezaleak, homosexualak zein ezgaitu fisiko eta psikologikoak jarri zituzten jo puntuan.

Nola izan zen posible?

Genozidio hura xehetasun handiarekin antolaturikoa izan zen, atzean ikerketa “zientifikoak” edota kontzentrazio esparruen bilakaera izan zuelarik. Hortaz gain, kontuan hartzekoa da genozidio nazia sekretuki gauzatu zela, biztanleriari uneoro ezkutatzuz. Horrek atzetik urteetako doktrinamendua behar izan zuen, ekialdeko frontean gerrak izan zuen bilakaeraren propagandarekin bateratuz.

Doktrinamenduak, gainera, atzetik ofizial nazien autoritatea, baldintzarik gabeko sumisioa edota biztanleriari ezarritako diziiplina zorrotza eduki zituen.

Esan bezala, judutarrak gizakien azpitik zegoen arraza batekoak zirela sinesten zuten naziek, eta, beraz, horrelako gaixotasunetik mundua sendatu behar zen. Inolako sentikortasun edota gizatasunik gabe, nazien soluzioa “Azken Konponbidea” (munduko judutar guztiak akatzea) izenekoa zen, haien proiektuaren baitan.

Gerra Hotzaren garaiko mundu bipolarra: 1945-1989

Gerra Hotza: esanahiak eta ezaugarriak

Gerra Hotza II. Mundu Gerraren ostetik Sobietar Batasuna desagetera arte (batzuek Berlingo Hormaren jaustearekin batera bukatu zela diote) garatu zen garaia izan zen, non AEBk zein Sobietar Batasunak mundu mailako eragin ahalmena eskuratu zuten. Hala, ia lau mendeetan zehar bi bloke antagonikoen (aipatutako bi potentziek zein haien orbitako herrialdeek eratuak) lehiakortasuna bizi izan zen, alde batetik bloke kapitalista eta bestetik bloke sozialista gailendu zirelako.

Esan bezala, bi superpotentziek gatazka bat elikatuko dute, gerra osteko “mundu aske” (Europa zein Asia mailan, bereziki) hura kontrolatzearen. Horretarako, berrarmatze berri bat sustatuko da, energia nuklearretik eratorritako bonba atomikoa izango duela buru. Talka ideologiko eta kulturala nabaria izango da, eta aipatutako bi blokeetan AEBn edo SESBn eragina nabaria izango da orbitako herrialdeetako barne-politikan, modu eta maila ezberdinetan emango dena.

Bi potentziek gizartearen onespina aurkaria mehatxu gisa salduz lortu zuten.

Adibide batzuk jartzearren:

- Winston Churchill Erresuma Batuko lehen ministro ohiak Goebbels propaganda ministro naziaren (hona hemen britainiarraren izaera faxistaren erakusle bat) “Burdinazko gortina” terminoa erabili zuen, bai ideologikoki bi blokeen antagonismoa bai Europa Mendebalde zein Europa Ekialdearen banaketa politiko eta ekonomikoa irudikatzeko.
- Orduko Ameriketako Estatu Batuetako Truman presidentek “Truman Doktrina” aitortu zuen, zeinak, komunismoa mehatxu bat zela azpimarratzeaz gain, harekiko elkarlan oro zigortuko zela aitortzen zuen.
- Bere aldetik, A. Zhdánoven doktrinak mundua inperialista eta antidemokratikoen eta antiinperialista eta demokratikoen artean banatzen zuen. Hala, lehenak faxismorantz jotzen zuela, gerraren bitartez, eta aliatu estrategikoak zituela burgesak eta sozialdemokratak. Bigarrenak aldiz, subjektu haiekin harremana eten behar eta faxismoaren aurka egin behar zuen, orbitako alderdi komunistek gobernu erreformistetan parte hartzen ez zutelarik.

Blokeen politikak

Bloke kapitalistaren sistema ekonomikoa liberalismo ekonomikotik eratorritakoa zen. Politikoki liberal edota faxista, izaera antikomunista nabaria zen, eta munduan demokrazia liberalak (“agindupekoak”) edo AEBn kontrolpeko diktadurak (estatu-kolpeen bidez) ezarri zituzten.

Izaera sozialista edota aldarrikatzailea zuten subjektu eta erakundeenganako errepresioa bultzatu zuten, adibide argienetakoa AEBtako Sorgin-ehiza (1950-1956 bitarte komunistatzat zituzten artista, militante, gizabanakoei egindako jarraipena) da.

Komunistek gidatutako bloke sozialistak planifikazioko ekonomiak bultzatu zituen, politikoki langileriaren diktaduren baitako gobernuak (“herri demokraziak”) babestu zirelarik. Iraultzaren aurkakoen liberalenganako errepresioa existitu zen ere. Bi blokeek sareak eratu zituzten, mundu mailako eragina sendotzeko.

Estatu Batuen sare ekonomikoa

1947ko Marshall Planaren bidez II. Mundu Gerran suntsitutako Mendebaldeko Europan esku-hartu, diru laguntzak bideratu, base militarrik eraiki (hauek AEBn lurralde ofizialak ziren) eta komunismoaren eragina geldiarazi nahi izan zen. Hala, kapitalismoa birfinkatu zen internazionalki, dolarra dibisa internazionala zelarik.

Sobietar Batasunaren sare ekonomikoa

1949ko COMECON onartu ostean, SESBk naziengandik askatutako Ekialdeko Europako lurraldeei laguntza bideratu zien. Politika deszentralizatua zen arren, ekonomia planifikatua Moskuren arabera zen eta herrialdeetako alderdi komunistatik 1917tik zetorren Sobietar Batasuneko Alderi Komunistaren eragina handia izan zen.

Estatu Batuen sare militarrik

1949an, AEBk Kanada eta Mendebaldeko Europako herrialdeekin ofentsibarako adostu zuen OTAN-NATO akordioa.

Sobietar Batasuneko sare militarrik

Bloke Sozialistak (Europa mailakoak batik-bat) Varsoviako Akordioa adostu zuen bloke kapitalistaren ofentsibaren aurrean erantzunerako minimoak adosteko. Sare militarren garapenak arma nuklearren lasterketa sustatu zuen AEBn eta SESBn artean, berrarmatze prozesuak pisu handia hartu zuelarik.

Lehiaren hasiera

1946ko Pragako Kolpean, Komunista txekiarrak Sobietar Batasunatik aldentzen saiatu ziren baina Stalinek Sobietar Batasunaren ministro berriak ezarri zituen eta Txekoslovakia bloke komunista barruan geratu zen.

Geroago, 1948an Greziako Gerra Zibila bizi izan zen. Bertan, partisau komunistek Sobietar Batasunaren eta Jugoslaviaren laguntza jaso zuten. Peraan, azkenean garaile irten ziren monarkikoak eduki zituzten, AEBK eta Erresuma Batuak lagunduta.

1950ean Txinan Txinako Herri Errepublikak ezarri zen, Mao Tse Tung komunista errebisionistak Gerra Zibila irabazi ostean (SESBN laguntzaz). Nazionalista liberalak (Chiang Kaichek gidatuta, AEBN laguntzaz), galtzaile irten ostean, Taiwanera ihes egin, eta estatubatuarren laguntzaz, estatu-kolpe bat eman zuten, estatu autonomo kapitalista bat eratuz.

Alemania eta Berlingo blokeoa

Europako markoan, Alemania zatituta geratu zen gune administratiboetan (AEB, Frantzia, Erresuma Batua eta SESB), II. Mundu Gerra bukatu ostean, eta Berlin, Sobietar Batasunaren mende zegoena, guneetan geratu zen zatituta ere.

1948an, bloke kapitalistaren baitako guneak batu eta AEBN orbitako herrialde berri bat sortu zuten (Alemaniako Errepublika Federala). Horren aurrean, I. Stalinek (SESBN buruak) gune kapitalistari Berlingo sarrera blokeatuz erantzun zuen, eta hortik aurrera hegazkinez hornitu behar izan zuten haien kontrolpeko Berlingo zatia liberalek, egunero milioika kiloz.

Urtebete beranduago, sobietarrek blokeoa altxatu eta ekialdeko gune hartan Alemaniako Errepublika Demokratikoa eratu zen, Berlinek, herrialdearen barruan, zatituta jarraitu zuen arren.

Asiako gatazkak: Korea eta Vietnam

Koreako Gerra (1950-1953): II. Mundu Gerra ostean, Korea bitan zatituta geratu zen: Ipar Korea (izaera sozialistakoa, "Juche" ideologia) eta Hego Korea (AEBN orbitako herrialde kapitalista).

1950ean, suposatzen zuen arriskuagatik, Ipar Korea Hego Korean sartu zen, sobietarren laguntzaz. Hego Koreak estatubatuarren laguntzaz kontraerasotu zuen arren, berehala, Maoren gidaritzapean, txinatarrak gatazkan sartu eta bloke sozialista Seulera (Hego Koreako hiriburua) iritsi zen.

Hala ere, 1953rako mugak birdefinitu ziren gerra aurrekoen pareko eta arma nuklearren erabilera saihesteko bake akordioa sinatu zen, berriro ere korearrak bitan zatituta geratzen zirelarik.

Ondorioen artean, bi milioi hildako, hurrengo urteetako etengabeko tentsioa edota Asiako markoan Estatu Batuek haien orbitako herrialdeak (Hego Korea, Japonia) bai ekonomikoki bai militariki hornitzen hastea dauzkagu, sozialismoaren aurkako prebentzio gisa.

Vietnamgo Lehen Gerra (1947-1954):

Gerraostean Indotxinak Frantziaren kolonia izaten jarraitu zuen, Vietnam (orduan Annam eta Tonkin artean banatua), Kanbodiak, Laos eta Kotxintxinak eratuta. 1945ean Japonia Indotxina inbaditu zuen, gerraostean Vietnam Frantziaren eskuetara itzuli zen arren.

Hala ere, herrialdearen barruan Viet-Minh mugimendu vietnamitar komunistak, Ho-Chi Minh buru, frantziarrak kanporatu eta Vietnamen zatiketa bideratu zuen, iparraldea eremu komunista zelarik eta hegoaldean diktadura bat ezartzen zen bitartean, estatubatuarren interesetara.

Vietnamgo Bigarren Gerra (1964-1975): Estatu Batuek bultzatutakoa, Ipar Vietnamgo mugimendu komunista ezabatzeko asmoekin. Gerra honetan AEB eta Hego Vietnam Ipar Vietnamgo Alderdi Komunista eta Vietcong gerrilla komunistaren aurka aritu ziren, gerrilla honen jarduna Laos eta Kanbodiara ere hedatu zen arren. Hala, 1973rako AEBk ospa egin behar izan zuen Vietnametik eta 1975ean komunistek herrialdea bateratu zuten, Vietnamgo Estatu Sozialista eratuz.

Horren ostean, Vietnam eskualde indotxinatarreko potentzia nagusia bilakatu zen, gerraren konnotazioek Kanbodia eta Laos ukitu zuten arren. AEBrentzat, aldiz, porrot militar izugarria izan zen, gerra luze bat irabazteko ezintasunagatik, arma bortitzak (Nappalm) erabili arren. Historian galdutako gerra bakar honen ostean, estatu Batuetan militarismo kapitalistaren aurkako mugimendu bakezaleak azaleratu ziren.

“Bizikidetzak baketsua” eta Lasterketa Espaziala

1953an Stalin hil zen, ondorengo Nikita Jrushev izan zelarik. Hark, marxismo-leninismotik urrundu eta konfederazioa “bizikidetzak baketsu” baterantz gidatu nahi izan zuen. Horren fundamendu nagusia, Sobietar Batasunak konfrontazio eta gerrari uko egin beharko ziola zen, sozialismoa hedatzerako orduan.

Horrela, Europako herrialdeetan tentsioa leundu zen, AEBekin elkarlanean eta bilerak egiten hasi zen, baita Koreakoa bezalako bake akordioak sinatuz. Diskurtso publikoaren atzean zegoen ideia, gerrarako prestutasuna eta berrarmatze masiboak jarraitu arren, gerrak saihestea zen.

Klabe antiinperialista baina erreformista batzuetan, bi superpotentziek lehiakortasuna bultzatzen jarraitu zuten, arma nuklearren inguruko ikerketek bere horretan jarraitzen zutelarik. Sobietar Batasunak 1955eko Varsoviako Akordioari eutsi zion eta lasterketa espazialari gogor ekin zion (Sputnik 1957an, lehen satelitea espazioan; Laika; Maria Teleskova; Yuri Gagarin).

Estatu Batuek, haien aldetik, 1954tik aurrera mendeku masibo baten doktrina hedatu zuen Eisenhower presidentearen eskutik, komunismoaren hedapenaren mehatxuaren aurretik. Hartara, indarraren erabilera legitimatu zen. Horren adibide da 50. Hamarkadatik aurrera Latinoamerikan, soldaduak bideratu gabe, finantzatutako eta sustatutako diktadura militar guztiak, CIAren bidez: Nikaraguan Somoza 1950-1956 bitarte, Batista Kuban 1952-1959 bitarte, Rojas Kolonbian 1953-1957 bitarte, Txilen Pinochet 1973-1990 edo Stroessner Paraguayn 1954-1989 bitarte.

Azaldutako lehiakortasun hori eremu espazialera hedatu zen ere AEB eta SESBen artean, inbestigazio erakunde nagusiak NASA estatubatuarra eta Interkosmos sobietarra izan zirelarik.

Lehia horren helburuen artean energia-iturri berriak bilatzea, telekomunikazioen garai berrian nagusitzea eta nagusitasun teknologikoa erakustea zeuden. Hartarako garapena hurrengoia izan zen:

- Sobietar Batasuna: 1957an lehenengo satelitea (Sputnik) bidali zuten espaziora, urte berean lehen animalia (Laika txakurra) eta 1961ean lehen gizakia (Yuri Gagarin).
- AEB: 1958an aireratu zuten lehen satelitea (Explorer), 1960an Apolo XI programa espaziala jarri zuten martxan eta ustez 1969an Neil Amstrong ilargira iritsi zen (lehen gizakia Ilargian). Estatubatuarren artean W. Von Braun SS nazietako kide ohiak hartu zuen parte, Hitlerrentzat iraganean hainbat arma asmatu zituen, estatubatuar nazionalitatea eskuratu ostean.

Tentsioaren itzulera

Suezeko Krisia (1956): 1952an Nasser militar egiptoarrak altxamendu bat bultzatu zuen bere herrialdean eta sistema sozialista bat ezarri zuen Egipton. 4 urte beranduago, Nasserrek Suezko Kanala nazionalizatu zuen, eta europako herrialdeen kolonialismoaren aurkako ikur bilakatu zen.

Orduan, Israel Sinaí penintsula inbaditzera abiatu zen, Frantzia zein Britainia Handiaren laguntzaz. Estatu Batuek, ordea, inbasioa gelditzera behartu zituen, Gerra Hotzaren garapenaren puntuan Ekialde Hurbila aliatuak lortzeko markoa kontsideratzen baitzuten, eta garai post-kolonial batean estatubatuarrek europarrei haien nagusitasuna erakutsi ahalko zieten.

Ondorioz, Ekialde Hurbila eragin-eremu potentzial bat izango zen 60. Hamarkadatik aurrera bai AEB zen Sobietar Batasunarentzat.

Hungariako Matxinada (1956): Orduko Hungariako presidentea zen Nagy SESBen eragin eremutik aldentzea bultzatu zuen, baina Kruschevek esku hartu eta Nagy boteretik kentzera behartu zuen, haren menpeko gobernua ezarriz.

Unibertsitateko ikasleek, aldiz, Nagyren aldeko matxinada armatu bat bultzatu zuten Budapestean bertan. Ondorioz, Nagy boterera itzuli zen eta hauteskundeak antolatu ostean, Hungaria 1955eko Varsoviako Akordiotik irteteko prestatu zen. Aukera horren aurrean, SESB tankeekin sartu zen Hungarian, matxinada zapaldu eta Nagy Hungariatik bota zuten.

“Mezua: SESBek ez zuen desadostasunik onartuko.”

Kubako misilen krisia:

1959an Fidel Castro eta Ernesteo “Che” Guevarak Kubako matxinada zuzendu zuten, sobietarren laguntzaz, Batista diktadore pro-estatubatuarra garai zezan gerrilla komunistak. AEBk Kubarekin harreman diplomatiko oro apurtu zuen eta blokeo komertziala ezarri zuen, bai itsasoz bai airez.

Gainera, estatubatuarrek Bahía de Cochinosetik Kubaren inbasioa abiatu zuten, berehala castristek inbasioa ekidin zuten arren. AEBn ondoko garaipen hark irakaspen handia suposatu zuen bloke sozialista guztiarentzako.

1962an hegazkin espia estatubatuar batek sobietarren misil baseak aurkitu zituen irlan, eta berehalako erantzuna Kuba osoa inguratu eta militarki blokeatzea izan zen. Hau izan zen, seguruenik, Gerra Hotzeko tentsio-momentu zorrotziena, bi potentziak arma nuklearrak erabiltzeko prestutasuna ageri baitzuten. Hala ere, bukaeran Kennedy eta Jrushev presidenteak bildu, Telefono Gorria eratu, eta tentsioa baretu zuten.

Ondorio gisa, AEBk Turkian zeuzkan misil baseak desmuntatu zituen, eta Kuba ez inbaditzeko konpromezua hartu. Kuba, Sobietar Batasunaren orbitan geratu zen eta komunismoa antinperialismoaren bidetik hedatu zen Latinoamerika osotik.

Gerra Hotz klasikoaren bukaera

1970. hamarkadako jarrera aldaketa

1973ko krisi ekonomiko mundialak lasterketa espaziala moteldu zuen. Horrez gain, i potentzia nagusiek barne gatazkak bizi izan zituzten:

- AEB: Vietnam eta Latinoamerikako gerren aurkako oposizioak (bakezaletasunetik) indarra hartu zuen eta afroamerikarren eskubideak aldarrikatu ziren. Beraz, beste lehentasun batzuk azalerratu ziren gizartean.
- SESB: Lehiak Albania Sozialista, liberalizatzen ari zen Jugoslavia eta Txinako alternatiba maoistarekin.

Egoera honek desarmatze ekimenak bultzatu zituen (SALT-ko akordioetan Nixon eta Brezhnevrek arsenal nuklearren murrizketa adostu zuten).

Hala ere, 1980. Hamarkadan gatazkak itzuli ziren, bi herrialdeek Europan misilak ("Euromisilak") instalatu zituztenean 1983-1987 bitarte. Aldi berean, 1979an Sobietar Batasuna Afganistanen sartu izana.

Deskolonizazioa (1945etik aurrera)

Zergatiak

II. Mundu Gerraren eraginak Europa garaiezinaren mitoa hautsi zuen, Japoniaren ereduari jarraiki. Hala, Asia zein Afrikako eremu kolonizatuetan gerrillak eta tropa kolonialen presentzia areagotu zen, potentzia inperialisten aurka borrokatzeko prest. Horrek kolonien eta metropolien arteko urruntzea suposatu zuen.

Bestalde, hainbat mugimendu antikolonialista sortu ziren garai honetan; hala nola esanguratsuenen artean Internazional Komunista, indigenismo zein indianismoa edota identitate erlijiosoen sorrerak dauzkagu. Haietaz gain, bere pisua eduki zuten burgesia ekonomiko zein komertzial lokalek babesa eman izana edo panarabismo zein panafrikanismoak.

Nazio Batuen Erakundea II. Mundu Gerra bukatzerakoan eratu zen, mundu mailan bakea bermatzeko helburuarekin. Alde horretatik, NBE kolonialismoaren aurka kokatu zen, kolonien definizio bat emanez eta haien autodeterminaziorako eskubidea aldarrikatuz.

Gerra Hotzaren garaian kokatuta, Estatu Batuak eta Sobietar Batasuna kolonialismoaren kontra zeuden haien "inperialismo berriak" hedatzeko. Estrategiak: Estatu Batuen estrategia beren sorrera kolonialari etekina ateraz nazio askeen eredu gisa azaltzea zen. SESBek bere aldetik, komunismoaren inperialismoaren aurkako jarrera aprobetxatu zuen borroka antiinperialista bultzatu eta herrialdeak bere alde lerroka zitezten.

Deskolonizazioaren eszenatokiak eta faseak

Asia: 1945-1955 bitartean

Indian hasi zen mugimendu antikolonialista hau nagusitzen II. Mundu Gerra amaitzerakoan, alde aurretik azaldutako testuinguruan.

Kasu honetan, metropoli ohiek ez zituzten inolako momentutan okupatutako lurraldeen ezaugarri erlijioso eta kulturalak aintzat hartu. Gerora, Gerra Hotzeko interes berriekin talka eginez, gatazkak sorrarazi ziren XX. eta XXI. mendeetan zehar, bereziki erlijiosoak izan zirenak (India eta Pakistan artekoa, Pakistan eta Bangladesh edota Israel, Palestina eta Arabiar estatuaren artekoa).

Afrika: 1956-1975 bitarte

Nazio Batuen Erakundeak zuzenki eragin zuen Afrikako lurraldeen deskolonizazio prozesuan, AEBn garrantzia eta esku-hartzea nabaria izan zelarik.

Deskolonizazioen erritmoak ezberdinak izan ziren, metropolien ezaugarri eta interes politikoaren arabera (Frantzia eta Erresuma Batuak bezalako demokraziak eta Portugal zein Espainia diktadurak). Ondorio gisa Afrikako herrialdeak muga artifizial berrien bidez zatitu zirela daukagu, eta horrek gatazka ugari sortu zituen XX. mendean. Botere politikoa lortzeko gerra zibil-etnikoak eragin ziren, arrazismoan oinarrituta. Ruanda, Liberia edota Sudaneko kasuetan arrazismoa ageri zen argi eta garbi.

Atzean interes internazionalak zituzten herrialdeen arteko gerrak zonaldean zuten ahalmena erakusteko baliatu zituzten Marokok Sahararekin edota Argelia eta Maliren artean. Afrikako markoan, ez zen inoiz egonkortasun egoera bat bizi izan.

Deskolonizaziorako bideak

Bide baketsua

Bide hau Erresuma Batuak bultzatu zuen, metropoliaren mehatsuaren aurrean, kolonien independentzia “erraztuz”, betiere harreman ekonomiko eta komertzialak metropoliaren interesen arabera izango zirelarik (“Commonwealth” delakoaren bidez dependentzia ekonomikora kondenatu zituen).

Bide iraultzailea

Kasu hauetan deskolonizazio prozesuak metropoli eta kolonien arteko gerra batekin hasi ziren: 1945-1949 bitartean Holanda eta Indonesiaren artean; Portugal, Mozambique eta Angola artean, 60.etik 70. hamarkadara arte luzatu zena.

Bide mistoa

Koloniaren eta momentuaren arabera kudeatu zituen deskolonizazioak Frantziak. Afrikako kolonia gehienek independentzia onartu zuen arren, Indotxinaren independentziari (1947-1954) edota Algeriarenari (1954-1962) uko egin nahi izan zien.

Hirugarren bide baten sorrera: Bandung eta Lerrokatu Gabeko Herrialdeen Mugimendua

Gerra Hotzean zehar eman ziren deskolonizazio prozesuak ez zuten herrialde berrien benetako subiranotasuna suposatu. Horregatik, garai kolonial ostean sortutako herrialde berri garrantzitsuenek Bandungeko Konferentzia Afro-Asiatikoa garatu zuten 1955ean, AEB zein SESBren gaindik aparte, hirugarren bide bat hartuz. Hartako helburu nagusiak hurrengoak izan ziren:

- Elkarkidetzak Afro-Asiatikoa bultzatzea, esparru ekonomiko zein kulturean.
- Metropoli ohien edota AEBn neokolonialismoa babestea.
- Sobietar Batasunaren eragin-eremutik at kokatzea.

“Hirugarren Mundua” kontzeptua testuinguru honetan hedatu zen, lehena AEBk gidatutako bloke kapitalistari deituz eta bigarrena SESBn gidaritzapeko bloke sozialistari esleituz.

1961ean, aldiz, Lerrokatu Gabeko Herrialdeen Mugimendua sortu zen, bertako herrialde eta politikari nagusiak Tito jugoslaviarra, Nasser egiptoarra eta Sukarno indonesiarra izan zirelarik, Gerra Hotzeko ikur ohiak.

Bandungen garapena

Mugimenduak ez zuen lortu AEBk eta SESBk adina botere politiko edo ekonomiko. Horrek, NBE mugimenduak pisu txikia edukitzea eragin zuen eta ahulezia nabaria izan zen erabaki garrantzitsuak hartzerako orduan, ez baitzuten laguntza internazional eraginkorrik eskuratu.

Hala, iparraldearen eta hegoaldearen arteko desorekak areagotu ziren, lerrokatu gabeko herrialde zein "Hirugarren Mundua" deitutakoan garapen ezberdinak bizi izan zirelarik: Txina, India, Thailandia, Korea etab. "Dragoi Asiatikotzat" jo zituzten, Afrikan menpekotasuna, ezegonkortasuna eta pobrezia orokortzen zen bitartean.